

Zergen inguruan EH Bilduk aurkeztutako proposamenek ez zuten aurrera egin EAJko kontrako botoagatik

Urriaren 24an eginiko ezohiko udalbatzan Ibilgailu eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergen eztabaida izan zen. EH Bildun hobekuntza batzuk aurkeztu genituen, beti ere, berdintasuna eta justizia soziala zein trantsizio ekosoziala lehentasun gisa hartuta.

Azken urteetan biztanleriaren egoera sozioekonomikoak okerrera egin duela kontutan hartutako proposamenak izan dira; ahalmen ekonomiko murriztena duten herritarren egoera kontuan izanik. EAJk ordea, EH Bilduk eginiko proposamenak atzera bota zituen.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren inguruan gure proposamenak hauek izan dira:

1. *Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Birgaitze Energetikoko Proiektuetan parte hartzea erabaki duten jabeen ondasun higieziari (Landatas eta M^a Dolores Madaria auzoak) hobaria ematea. Hobari hori zuzenean eta obrak amaitu arte aplikatzea proposatzen da (2026ko abendura arte alegia).*

Etxebizitzetarako eraikinen Energia Ziurtagiriaren arabera, hobariak ematen hasiko dira, baina EH Bilduren iritziz, interesgarria da, gainera, hobari berezi eta puntual bat ezartzea birgaitze proiektuetan parte hartzea erabaki duten pertsonentzat, ahalegin ekonomikoa garrantzitsua izango baita, eta horiek saritzea animatzeko modu bat baita.

2. *Familia ugarietz gain, errentaren arabera, pentsio ez-kontributiboak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzeagatik egoera zaugarrian dauden pertsona zein familiei ere hobariak ematea proposatzen da, guraso bakarreko egoeretan arreta berezia jarritz.*

Horrela, gerta daitezkeen egoera guztiak kontuan hartzeko, EH Bilduk hobarien koadrante bat proposatzen du, mota guztietako egoerak kontuan hartzen dituena, familia ugariak izan ala ez.

Elkarbizitza unitateko kideak	Hobaria		
	% 90	% 75	% 50
1	< 15.400	15.401-17.500	17.501-19.000
2	< 16.933	16.934-21.666	21.667-26.000
3	< 18.466	18.467-25.832	25.833-33.000
4 kide edo gehiago	< 20.000	20.001-30.000	30.001-40.000

3. *Hutsik dauden etxebizitzei zergaren kuota likidoaren % 50eko erreargua ezartzea proposatu dugu, etxebizitza hauek alokairuan merkaturatzen laguntzeko.*

Hainbat neurri daude etxebizitzaren jabeak animatzeko, alokairuan eskaini ditzaten. Bata OHZren hobaria ezartzea alokairu egoeran badaude, baina beste bat da erreargua egitea etxebizitza hutsik dagoenean (% 50 arauaren arabera).

Urduñan arazo bat da alokairuko etxebizitzak aurkitzea. Familientzat eta gazteentzat ia ezinezkoa da. Gainera, alokairu erabilgarriak pertsona batzuen aukera ekonomikoen oso gaintetik daude. Bestalde, egindako azken azterlanaren arabera, 600 etxebizitza baino gehiago daude hutsik Urduñan. Kontuan hartuta horietako batzuk agian ez daudela bizitzeko moduan, nahiz eta bizitzeko daudenak erdiak baino ez izan, asko dira.

Neurri sinple hori udalerrri askotan ari da martxan jartzen: Laudion, Galdakaon edota Bilbon esaterako. Udalak herritarren zerbitzura egon behar du, etxebizitza eskubide unibertsala da, eta erakundeek bermatu egin behar dute eskubide hori gauzatuko dela, aitzakia ezin da izan "hori kudeatzeko giza baliabiderik ez dugula".

Las propuestas de EH Bildu sobre los impuestos municipales no prosperaron por el voto en contra del PNV

En el pleno extraordinario celebrado el 24 de octubre, en el que se debatió sobre los impuestos municipales (Impuesto sobre Vehículos y Bienes Inmuebles), EH Bildu presentó una serie de mejoras, teniendo en cuenta la igualdad, la justicia social y la transición ecosocial.

Se trata de propuestas que han tenido en cuenta el empeoramiento de la situación socioeconómica de la población en los últimos años, con el objeto de atenuar la situación de la población con menor capacidad económica. Sin embargo, el rechazo del PNV hizo que las propuestas no salieran adelante.

En relación con el Impuesto sobre Bienes Inmuebles nuestras propuestas han sido las siguientes:

- 1. Aplicar una bonificación máxima a aquellos bienes inmuebles cuyos propietarios/as hayan decidido tomar parte en los Proyectos de Rehabilitación Energética impulsados por el Gobierno Vasco (Barrios de Landatas y M^a Dolores Madaria). Se propone que esta bonificación se aplique hasta que concluyan las obras (Diciembre 2026).*

Según la Certificación Energética de los edificios destinados a viviendas se van a empezar a bonificar, pero desde EH Bildu se ve interesante, además, incluir una bonificación especial y puntual para aquellas personas que han decidido tomar parte en los proyectos de regeneración puesto que el esfuerzo económico va a ser importante, y es una manera de animar recompensarlos.

- 2. Además de las familias numerosas según su renta, se propone bonificar también a personas/familias que se encuentren en situación de vulnerabilidad por ser perceptores de pensiones no contributivas, de Renta de Garantía de Ingresos o Ingreso Mínimo Vital, con especial atención a las situaciones de monoparentalidad y monomarentalidad.*

Así, para tener en cuenta todas las situaciones que se pueden dar, desde EH Bildu se ha propuesto un cuadrante de bonificaciones que contempla todo tipo de situaciones, sean familias numerosas o no.

Número de miembros de la unidad convivencial	Bonificación		
	90 %	75 %	50 %
1	< 15.400	15.401-17.500	17.501-19.000
2	< 16.933	16.934-21.666	21.667-26.000
3	< 18.466	18.467-25.832	25.833-33.000
4 miembros o más	< 20.000	20.001-30.000	30.001-40.000

3. *Se propone que los inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia del sujeto pasivo o de terceras personas a las que les haya sido arrendada o cedido su uso tendrán un recargo del 50% de la cuota líquida del impuesto.*

Existen diferentes medidas para animar a propietarios de pisos a que los ofrezcan en alquiler. Una es la bonificación del IBI si están alquiladas, pero otra es hacer un recargo cuando la vivienda esté vacía (50% según la Norma).

En Orduña supone un problema encontrar viviendas de alquiler. Para familias y jóvenes está siendo prácticamente imposible. Además, los alquileres disponibles están muy por encima de las posibilidades económicas de algunas personas. Además, por otro lado, el último estudio realizado en Orduña ha constatado que tenemos unas 624 viviendas vacías. Contando que tal vez algunas de ellas no estén habitables, aunque solo sea la mitad las que están para vivir, son muchas.

Esta medida que es simple ya se está poniendo en marcha en muchos municipios: Laudio, Galdakao, Bilbao, etcétera. El ayuntamiento debe estar al servicio de la ciudadanía, la vivienda es un derecho universal y las instituciones deben ser garantes de que se ejerza, la excusa no puede ser “es que no tenemos medios humanos para gestionarlo”.